

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**219/2020 Foru Agindua, irailaren 21ekoa, hasierako onespena ematen diona ondoko proiektuaren interes publikoa adierazteko espedienteari: 13,2 kV-ko aireko/lur azpiko linea, Ceniceroteako "San Asensio" 13,2 kV-ko aireko linearen 247. euskarria eta "Calle el Barco" transformazio zentroa lotzekoa, Mañuetan, i-DE Redes Eléctricas Inteligentes SAUk (Iberdrola taldea) sustatuta, Mañuetako udalerriko lurzoru urbanizaezinean zehar igarotzeari dagokionez**

I-DE Redes Eléctricas Inteligentes SAUk (lehen, Iberdrola Distribución Eléctrica SAU) udalaren obra lizentzia eskatu dio Mañuetako Udalarari proiektu honetarako: 13,2 kV-ko aireko/lur azpiko linea, Ceniceroteako "San Asensio" 13,2 kV-ko aireko linearen 247. euskarria eta "Calle el Barco" transformazio zentroa lotzekoa, Mañuetan.

Mañuetako Udalak espedientea bidali eta proiektuaren interes publikoaren adierazpena izapidetzeko eskatu du, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Aurkeztutako proiektuak eskualdeko elektrindar hornikuntza hobetzea du oinarria, eta barnean hartzen du probintzia arteko linea misto berri bat (airekoa eta lur azpikoa) eraikitzea, Ceniceroteako "San Asensio" izeneko 13,2 kV-ko aireko linearen 247. euskarri berria eta "Calle el Barco" deituriko transformazio zentroa lotzekoa, San Asensio eta Torremontalvoko udalerrietan (Errioxan) eta Mañuetako udalerrietan zehar joango dena. Proiektaturiko aireko linearen 2.987 metroetatik, 2.887 metro Errioxan egingo dira eta gainerako 100 metroak Mañuetako udalerrian. 214 metroko luzera duen lur azpiko linearen kanalizazioari dagokionez, hura guztia Mañuetan egitea jasotzen da proiektuan.

Proiektu teknikoan jasotzen da proiektaturiko aireko linearen trazadurak Ebro ibaia zeharkatuko duela, eragina izango duela "Sotos y Riberas del Ebro" Batasuneko garrantzizko kontserbazio bereziko eremuaren barruan (Errioxan) dauden zenbait lurretan, baita "Ebro ibaia/Río Ebro" kontserbazio bereziko eremuan, Araban igarotzen den zatian. Bi eremu horiek Natura 2000 sarekoak dira. Halaber, Arabako trazadurak eragina du hegaztiak linea elektrikoetatik babesteko lehentasunezko eremuan.

Espedientean jasota dago Mañuetako Udaleko arkitektoak egindako txostena, zeinean adierazten baita proiektuaren trazadura igarotzen den lurraz lurzoru urbanizaezin bezala sailkatuta eta lur azaleko urak babesteko eremu bezala kalifikatuta daudela; udalerrian indarrean dauden plangintzaren arau subsidiarioetako 202. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, zona horretan baimendutako erabilera bezala jasotzen dira onura publiko eta gizarte intereseko azpiegiturak.

Gobernuaren Arabako Ordezkariordeztaren 2020ko ekainaren 9ko jakinarazpena jasota dago, horri erantsita dagoela Energia Politikaren eta Meatzeen Zuzendaritza Nagusiaren ebazpena, zeinaren bidez ematen baitaizkio i-DE Redes Eléctricas SAUari alde aurreko administrazio baimena, eraikitzeko administrazio baimena eta espediente honen gaia den proiektuaren onura publikoaren adierazpena.

#### OINARRI JURIDIKOAK

Lehenengoa. Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskumena du aztertzen ari den espedientea ebazteko, diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren arabera eta sailaren egitura organiko eta funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuko 18.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bat etorri lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan ezarritakoarekin, "lurzoru urbanizaezinean ezingo dira gauzatu aplikatzekoa den arloko legeriak edo lurralde antolamenduak interes publikoko deklaraturako zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berariaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak, betiere, dagokion foru diputatuak ebazpen bidez deklaratu behar baititu interes publikoko, hogeiei egunez jendaurrean edukitzeko izapidea bete ondoren".

Bigarrena. Aztertutako kasuan, hasierako onespena izapide bat baino ez da, hots, prozedura bultzatzen duen eta edukia argitaratzea ahalbidetzen duen izapidea baino ez, eta ez du xedatzen, inondik inora, behin betiko onespenerako hartu beharreko erabakirik.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Hasierako onspena ematea ondoko proiektuaren interes publikoa adierazteko espedienteari: 13,2 kV-ko aireko/lur azpiko linea, Cenicero TEAko "San Asensio" 13,2 kV-ko aireko linearen 247. euskarria eta "Calle el Barco" transformazio zentroa lotzekoa, Mañuetan, i-DE Redes Eléctricas Inteligentes SAUK (Iberdrola taldea) sustatuta, Mañuetako udalerriko lurzoru urbanizaezinean zehar igarotzeko dagokionez.

Bigarrena. Espedientea jendaurrean jartzea, hogeiei egunez, foru agindu hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan, nahi duen orok egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango ditu. Interesa dutenek Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuan azter dezakete espedientea.

Hirugarrena. Foru agindu hau kualifikatu gabeko izapide egintza bat da eta haren aurka ez dago errekurtsua jartzerik.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailaren 21a

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua*  
**JOSEAN GALERA CARRILLO**